BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

1629

AGINDUA, 2012ko martxoaren 19koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena, Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitzeko hitzarmena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko xedatzen duena.

Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko hitzarmen idazpuruan adierazitakoa 2011ko azaroaren 22an sinatu zen.

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Eranskin modura azaltzen den hitzarmena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 19a.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.

VITORIA-GASTEIZKO ERIZAINTZAKO UNIBERTSITATE ESKOLA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEARI ATXIKITZEKO HITZARMENA, IDAZKARI NAGUSIAREN 2006KO OTSAILAREN 6KO EBAZPENEAN, ZEINAK IKASTEGIEN ATXIKITZEKO ESKAEREN ARAUTEGIA ARGITARATZEKO AGINTZEN DUEN, JASOTAKOAREKIN BAT ETORRITA

Gasteiz, 2011ko azaroaren 22a.

BILDUTA:

Alde batetik, Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea, unibertsitatearen izenean eta ordezkari gisa.

Eta bestetik, Rafael Bengoa Rentería jauna, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumoko sailburua eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluko presidentea, erakunde sustatzaile horren izenean eta ordezkari gisa.

ADIERAZI DUTE:

Lehenengoa.– Ikastegia atxikitzeko hitzarmen hau, 2011ko otsailaren 24ko EHAAn argitaratutako UPV/EHUren estatutuek arautzen dute, baita Ikastegien Oinarrizko Arautegiak eta Ikastegien Atxikitze Eskaerak Erregulatzeko Arautegiak ere.

Bigarrena.– Azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuaren bidez, Osasun eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zen. Eta berean, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaz, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoaren estatutuak ezarri ziren.

Hirugarrena.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola UPV/EHUri atxiki zitzaion 1978ko apirilaren 11ko Aginduaz (BOE, 1978-05-10ekoa), eta azaroaren 6ko 1536/1987 Errege Dekretu bidez Euskal Autonomia Erkidegora transferitu zen. Egun indarrean dagoen atxikitze hitzarmena Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailarekin sinatu zen 1998ko ekainaren 11n.

Laugarrena.– Ikastegien atxikitzeko eskaerak erregulatzeko arautegiaren xedapen gehigarriaren lehen atalean aipatzen direnekin bat etorrita, unibertsitateko Zuzendaritza Kontseiluak egin beharreko gestioak eraman behar ditu aurrera indarrean diren atxikitze hitzarmenak berrituko direla bermatzeko, bere aurreikuspenak aipatutako arautegi horretan xedatutakoari lotzeko.

Bosgarrena.– Aipatutako xedapen gehigarria aplikatuz, hitzarmen honen informazioa eman dute Arabako Campuseko Batzorde Iraunkorrak 2011ko azaroaren 10ean egindako bileran, eta Akademia Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeak, 2011ko azaroaren 10ean egindako bileran. Aurkeztutako eskaera ikusita, Gobernu Kontseiluak, 2011ko azaroaren 17an egindako bileran, onartu zuen UPV/EHUrekiko atxikitzea gaurkotzeko proposamena.

Seigarrena.– Horiek horrela, Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola UPV/EHUri atxikitzeko hitzarmen hau sinatzen da, betiere kontuan hartuta ondorengo

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Izaera, nortasuna, izena eta egoitza.

1.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola (egoitza du: Jose Atxotegi kalean, z/g, 01009 Vitoria-Gasteiz) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Zuzendaritza Orokorraren menpean dago, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren babespean, eta atxikitzeak berak ematen dizkion eskubide eta betebehar guztiak ditu berekin, eta, zehazki, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatu zuen hori) 80.4 artikuluan aitortzen dizkion UPV/EHUrako zerga-salbuespen eta -onurak izango ditu.

2.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolak I. eranskinean datozen instalazioak eta zerbitzuak ditu, 2011-01-31ko datuen arabera.

Bigarrena.– Emango dituen ikasketak.

1.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolak Erizaintza Graduko unibertsitate-titulua lortzera bideratutako ikasketak emango ditu, bai eta Erizaintza Diplomatura lortzera bideratutakoak ere, harik eta desagertu arte. Era berean, UPV/EHUren beraren tituluetara bideratzen dituzten ikasketak eman ditzake, baldin eta ikasketa horietako Gobernu Kontseiluak onartu duen indarreko arautegiaren arabera onartu badira.

2.– Gobernu Kontseiluaren ardura izango da, Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolan Erizaintzako Graduaren eta Erizaintza Diplomaturaren –titulu hori desagertzen den arte– titulu ofizialak lortzeko –Espainia osorako balioko dute– bideratzen dituzten irakasgaien ikasketa-planak onartzea edo aldatzea, betiere ikastetxe horretako zuzendaritza organoen proposamena jaso eta unibertsitatearen ordezkariak egindako txostena jaso ondoren.

3.– Aipatutako ikasketa-planek UPV/EHUko beste ikastegietan ematen diren titulu ofizial berberetara bideratzeko onartutakoek duten egitura bera izan beharko dute, iraupenari eta kreditu kopuruari begiratuta, baita oinarrizko eta nahitaezko eta oinarrizko irakasgai berberak ere. Aukerako irakasgaien bidez bakarrik ezar daitezke aipamenak, desberdinduak.

4.– Ikasketa horiek ematerakoan kasuan kasuko ikasketa planak dioena errespetatu beharko da, baita indarrean dauden arautegiak eta UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartutakoa bete ere.

5.– Osasun eta Kontsumo Sailak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoak konpromisoa hartzen dute Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolaren funtzionamenduari eusteko, gutxien-gutxienez, bertan ikasketak hasi eta onura akademiko normala izan duten ikasleek behar adinako denboraz beren ikasketak bukatzea ahalbidetzeko.

6.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate konpromisoa hartzen du, irakaskuntzaren kalitatea bultzatu eta hobetu nahirik, unibertsitatean ezarritako tresnak hartzeko eta prozedurak betetzeko. Irakaskuntzaren kalitatearen kontrola UPV/EHUko ikastegi guztietan oro har ezartzen den irakats ebaluazioaren bidez egingo da.

Hirugarrena.– Ikasketen izaera eta unibertsitate titulu ofizialak ematea.

1.– Euskal Herriko Unibertsitateak ezarritako arauak eta prozedurak betez Vitoria-Gasteizko Unibertsitate Eskolan egindako ikasketek UPV/EHUko ikastegietan egindakoek duten akademi balio berbera izango dute, eta betiere UPV/EHUn egindako ikasketek dituzten ondorio profesional berberak.

2.– Unibertsitate titulu ofizialak UPV/EHUko errektoreak emango ditu, estatuburuaren izenean, arloaren inguruan dagoen indarreko legeria errespetatuz.

3.– Berezko diplomak eta tituluak errektoreak emango ditu, UPV/EHUren izenean, arloaren inguruan dagoen indarreko legeria errespetatuz.

Laugarrena.– Irakasleak.

1.– Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak eta haren mendekoa den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoak bermatuko dute, ikastegiko irakasleei dagokienez, apirilaren 12ko 557/1991 Errege Dekretuaren 6. artikuluan ezarritako ratioa beteko dela, bai eta Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa eraldatzen duen apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak ezarritako gainerako eskakizunak ere.

2.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako irakasleek eutsi egingo diote Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoarekin duten harremanari, hitzarmen hau sinatu baino lehenagoko baldintzetan eta arautegi berbera betez. Ez dute UPV/EHUrekin inolako kontratu eta estatutu loturarik izango.

3.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako irakasleek indarreko legeriak unibertsitateko gainerako ikastegietako irakasleentzat eskatzen duen titulazio berbera izan behar dute.

4.– Edozein irakasgai emateko, «venia docendi» eman beharko zaio, aurretiaz, horretaz arduratuko den irakasleari. Errektoreak emango du, beharrezko diren txotenak eskatu ondoren. Emate horren balioa iraunkorra izango da, eta, aldatzekotan, ofizioz edo unibertsitatearen ordezkariak eskatuta aldatuko da.

5.– Ikastegi atxikiak irakasle bat kontratatzen duen guztietan, unibertsitatearen ordezkariari jakinarazi behar dio, txostenarekin batera, «venia docendi» eskaera errektoreari helarazteko.

6.– Hitzarmen honen II. eranskinean ageri dira zein diren 2011ko urtarrilaren 31n Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolan klaseak ematen dituzten irakasleak. Hitzarmen honetako edukia hiru urtean behin gaurkotuko da eta arloan eskumena duen errektoreordeari helaraziko zaio, ordezkariaren bitartez, ikasturte bakoitzean egin beharreko gaurkotzeak eragotzi gabe.

Bosgarrena.– Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak.

1.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako administrazio eta zerbitzuetako langileek eutsi egingo diote Eusko Jaurlaritzako Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoarekin duen harremanari, hitzarmen hau sinatu baino lehenagoko baldintzetan eta arautegi berbera betez. Langile horiek ez dute UPV/EHUrekin inolako kontratu eta estatutu loturarik izango.

2.– Hitzarmen honen III. eranskinean ageri da zein diren 2011ko urtarrilaren 31n Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolan administrazio lanak egiten dituen Administrazio eta Zerbitzuetako langileak. Hitzarmen honetako edukia hiru urtean behin gaurkotuko da eta arloan eskumena duen Errektoreordeari helaraziko zaio, ordezkariaren bitartez, ikasturte bakoitzean egin beharreko gaurkotzea edozein izanda ere.

Seigarrena.– Zuzendaritzaren egiturak eta barne funtzionamendua.

1.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola honela dago egituratuta:

- Gobernatzeko, pertsona bakarreko organoak ditu, zuzendaria eta ikasketaburua esaterako, eta kide anitzeko organoak, Eskolako Patronatua, kasu.
- Eskolako Patronatua Gobernu eta Kudeaketarako organo gorena da. Eta zortzi kide hauek osatzen dute:
  - Eskolako zuzendaria; lehendakaria izango da.
  - Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Osasun Laguntzarako zuzendaria, berezko kidea.
  - Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko Osasun Plangintza eta Antolamendurako zuzendaria, berezko kidea.
  - UPV/EHUren ordezkaria.
  - Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak izendatzen duen erizain bat.
  - Dedikazio osoz diharduten irakasleen ordezkari bat.
  - Ikasleen ordezkari bat.
  - Idazkari lanak egingo dituen ikasketaburua.

2.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolaren barne funtzionamendua bere arautegiaren araberakoa izango da. Hitzarmen honetako IV. eranskinean dator arautegia.

Zazpigarrena.– Ikasleak.

1.– Erizaintzako Eskolak ikasturte bakoitzean ikasle berrien gehieneko kopurua onartzeari begira, kontuan hartuko dira Osasun eta Kontsumo Sailak Euskal Autonomia Erkidegoaren erizaintzako profesionalen beharrez egiten dituen gomendioak. Gobernuak – ikastegiak proposatuta, eta aurrez Campuseko Batzarrak txostena eginda – eta UPV/EHUko Akademia Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordeak eta Gobernu Kontseiluak adostuta ezarriko da.

2.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolak bere ikasketak egiten utziko die bakar-bakarrik indarreko legeriak eta UPV/EHUren berariazko xedapenek, kasuan kasu, eskatutako titulazioa eta gainerako eskakizunak betetzen dituzten pertsonei.

3.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako ikasleen ebaluazioa ikastegian bertan egingo da UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartutako arautegiak xedatutakoa betez.

4.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolan matrikulatutako ikasle guztiek dute bertan ikasten segitzeko eskubidea, betiere Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluak ezartzen duen unibertsitatean irauteko arauekin bat etorrita.

5.– Matrikula Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako idazkaritzan egingo da. Ikastegiak konpromisoa hartzen du matrikularen datu guztiak emateko, UPV/EHUko Graduko Ikasketen Zerbitzuaren azalpenak jarraituz.

6.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolak bere ikasleen gestio akademikoa egingo du UPV/EHUko Graduko Ikasketen Zerbitzuaren jarraibideak betez. Zerbitzu horrek behar adinako laguntza emango du akademi gestioa behar den moduan gauzatzeko, eta ikasturte bakoitzerako UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartutako Akademia eta Irakaskuntza Gestiorako Arautegiarekin bat etorrita.

7.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolan matrikulatutako ikasleak UPV/EHUko ikasle izango dira, liburutegi, kirol, unibertsitate hedakuntza eta bestelako unibertsitate zerbitzuak eta Arabako Campuseko Errektoreordetzarekin ados litekeen beste edozein erabil ditzaten, betiere elkarrekikotasunez aplikatuta.

Zortzigarrena.– Koordinazioa eta elkarlana.

1.– Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolaren arteko komunikazio ofiziala UPV/EHUren ordezkari eta atxikitako ikastegiaren arauzko zuzendaritza organoaren artean egingo da. Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako zuzendari izaera eragotzi gabe, ez du parte hartuko UPV/EHUko ikastegientzat UPV/EHUko Gobernu Kontseiluko ordezkariak hautatzeko Estatutuen 175.1.c) artikuluak ahalbidetzen duen prozesuan. Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako zuzendariak Gobernu Kontseiluaren bileretan parte har dezake; hitza izango du baina ez botorik, horixe jasotzen baitu Gobernu Kontseiluaren Funtzionamendurako Arautegiak. Era berean, modu berberean har dezake esku Arabako Campuseko Batzarraren bileretan.

2.– Errektoreak izendatuko du Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako UPV/EHUren ordezkaria, Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako zuzendaritza organoei entzun ondoren; lanaldi osoko dedikazioa duten irakasle eta ikertzaile iraunkorren artetik hautatuko du, eta ahal dela doktorea izango da. Izendatu bezain laster, Eskolako Patronatuko berezko kide izango da eta indarreko arautegian jasotzen diren eginkizunak bereganatuko ditu.

3.– Arloan eskumena duen errektoreak edo errektoreordeak eskatuta, edo ordezkariak eskaera eginda, Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola behartuta egongo da akademi jarduerez eskatzen zaion informazio guztia ematera, arlo horretan indarrean dagoen legeriaren arabera.

4.– Gorako errekurtsoa aurkez dakioke errektoreari unibertsitatearen ordezkariak hartutako erabakien aurka.

5.– UPV/EHUk ikuskatuko du Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolan ematen diren jakintza arloei dagokien irakaskuntza. Ikastegi horretan ematen diren jakintza arloen kasuan kasuko sailetako zuzendariek egoki deritzoten informazio guztia eska dezakete, unibertsitatearen ordezkariaren bidez, diziplina horien programazio eta garapenaren inguruan.

6.– UPV/EHUk irakasleentzako bibliografi funtsak eta datu baseak erabiltzeko eta baliatzeko aukera emango dio Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolari.

Bederatzigarrena – Unibertsitate-erkidegoaren partaidetza eta arauak.

1.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolak konpromisoa hartzen du bere arautegietan eta gobernu organoetan unibertsitate-erkidegoko kideen sektore guztiak ordezkatuak izateko estatutuen printzipio nagusia zaindu eta aplikatzeko.

2.– Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua erakunde publikoak eta Euskal Herriko Unibertsitateak konpromisoa hartzen dute, bakoitzaren eskumenen arloan, honako hau bermatzeko: euskararen erabilera normalizatzea, irakaskuntzan eta unibertsitate zerbitzuetan; minusbaliotasunak dituzten pertsonak ikastetxean integratzea, eta bertako kideen berdintasuna eta bereizkeriarik eza zaintzea, eta unibertsitatearen estatutuetan eta horiek garatzeko arauetan xedatutakoaren arabera.

3.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako AZP eta irakasleak UPV/EHUk bere langileentzat antolatzen dituen prestakuntza ikastaroez balia daitezke, UPV/EHUko langileek plaza horiek betetzen ez badituzte, eta, hala dagokio, ezarritako prezioak ordainduko dituzte. Dena den, ikastetxe honek parte hartuko du interes orokorrekotzat jo eta ikastetxe guztietako langileek nahitaez parte hartu behar duten ikastaroetan.

4.– Nolanahi ere, Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola arautuko dute, hitzarmen hau aplikatzeari dagokionez, honako arau hauek: unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 11.2 artikulua; 485/1995 Errege Dekretuak aldatutako apirilaren 12ko 557/1991 Errege Dekretua; 2011-02-24ko EHAAn argitaratutako (argitaratu zain) UPV/EHUren estatutuak; ikastegien esparru-arautegia; ikastegien atxikipen eskariak erregulatzeko arautegia; atxikipen hitzarmen honen aurreikuspenak; berezko antolaketa eta funtzionamendu arauak, eta aplika daitezkeen beste edozein xedapen. Arauok elkarren kontraesanetan gertatuz gero, unibertsitate-arautegian xedatutakoa gailenduko da.

Hamargarrena.– Prezio publikoen ordainketa.

Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolak konpromisoa hartzen du UPV/EHUri ordaintzeko, ikasturte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoan, Eusko Jaurlaritzak ikasturte bakoitzerako, titulazio ofizialetarako eta, Gobernu Kontseiluak proposaturik, Gizarte Kontseiluak baimenduta dituen ezarritako berezko titulazioetarako ekonomia-eskubideak. Ordaindu beharreko diru-kopuruetarako, UPV/EHUri atxikitako ikastegientzat indarrean dauden arautegiek, atal bakoitzerako, ezarritako ehunekoak hartuko dira kontuan.

Hamaikagarrena.– Ikuskatzea.

1.– Hitzarmena betetzeari dagokionez, Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola UPV/EHUko ikuskapen-ahalmenaren mende egongo da.

2.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolak Aldezlearen parte hartzea ahalbidetuko du, ikasleengandik etorri eta bere arloko eskumenetakoak diren kexen kasuan.

3.– Ikuskaritza egiteko, UPV/EHUk eskatzen dion informazio guztia eman beharko dio Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako Zuzendaritzak, arlo honetan indarrean den legeriarekin bat eginik.

Hamabigarrena.– UPV/EHUren irudi korporatiboa.

Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolak bere jarduera guztietan agerraraziko du UPV/EHUri atxikitako ikastegia dela, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen irudi korporatiboa errespetatzeko konpromisoa hartzen du.

Hamahirugarrena.– Indarraldia.

1.– Hitzarmen hau hiru urterako izango, maila handiagoko araudiren batek klausularen bat aldatzeko eskatzen badu izan ezik. Esan gabe luzatu egingo da hiru urteko aldietarako, aldeetako edozeinek, aldi bakoitza bukatu baino sei hilabete lehenago, ez duela luzatu nahi azaltzen ez duen bitartea.

2.– Hitzarmen honek sinatzen den egunetik izango ditu ondorioak.

3.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolak hitzarmen honen ondorioz sortzen diren obligazioak betetzen ez baditu, UPV/EHUk ohartarazpena egingo dio. Egoera hori jakinarazi ondoren, atxikitako ikastegiak hilabeteko epea izango du aurkitutako akatsak zuzentzeko. Obligazio horiek bete gabe jarraitzen badu, betiere aurrez jakinarazi ondoren, geldiarazi egingo ditu UPV/EHUk administrazio tramiteak, eta, behar izanez gero, ikasleenak ere bai. Erabaki horren berri emango zaio autonomia erkidegoari, behar diren ondorioetarako.

4.– Hiru hilabeteko epean hitzarmen honen aurkako jarduna aldatuko ez balitz, arloan eskumena duen zuzendaritza-kontseiluko organoak eta UPV/EHU atxikipena kentzeko prozedura abiaraziko dute, betiere Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolari entzun ondoren.

Eta haien adostasuna adierazteko, honako hau sinatzen dute, bi aletan eta goian adierazitako tokian eta egunean.

UPV/EHUko errektorea,
IÑAKI GOIRIZELAIA ORDORIKA.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluko presidentea,
RAFAEL BENGOA RENTERÍA.

I. ERANSKINA

INSTALAZIOAK ETA ZERBITZUAK, 2011KO URTARRILAREN 31N

INSTALAZIOAK ETA ZERBITZUAK

1.– GELAK/INSTALAZIOAK

Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola Txagorritxu Ospitalearen barruko eraikin baten dago, EHUko Medikuntzako irakaskuntza-unitatearen aldamenean.

Eraikinak 1.640 metro koadroko azalera erabilgarria du, hiru solairutan banaturik. Gela hauek ditu:

Sotoa: liburutegia/ikasketa-gela, bileretarako bi gela eta artxibo pasibo bat. Igogailurako sarbidea eta larrialdietako irteera. Galdara-gela, kanporako irteera duela.

Beheko solairua: harrera, idazkaritza, zuzendaritza eta ikasketa-buruzagitza, klaustroa, irakasleen bulegoak eta sukalondoa, ikasleentzako atseden-gela, komunak, igogailurako sarbidea, larrialdietako irteera, kanporako malda duela.
Areto nagusia —bitan bana daiteke— eta ikasgela bat.

Lehen solairua: sei ikasgela, ikasteko eta lanerako ordenagailu-gela bat, demostrazio-aretoetarako maketak eta materiala dituen gela bat, ikasleentzako atseden-gela bat eta komunak.

Zentroak igogailua eta mugikortasun gutxiko pertsonak sartzeko maldak ditu.
Horretaz gain, doako aparkaleku handia ere badu Txagorritxu Ospitalearekin batera, eta lorategiak ditu inguruan.

IKASGELAK ETA OHIKO ERABILERARAKO ARETOAK

EUEk irakaskuntzarako ikasgela eta eremu hauek ditu:

Izena	Edukiera	Kokalekua	Erabilera
1. ikasgela - Iaso	87	1. solairua	Teoria, gaztelaniaz
2. ikasgela - Higea	87	1. solairua	Teoria, gaztelaniaz
3. ikasgela – Isis	71	1. solairua	Teoria, gaztelaniaz
4. ikasgela – Maketa-Gela		1. solairua	Demostrazio-gela
5. ikasgela - Marcela	24	1. solairua	Teoria, euskaraz
6. ikasgela - Florencia	24	1. solairua	Teoria, euskaraz
7. ikasgela – Ordenagailu-gela	24	1. solairua	Ordenagailu-gela
9. ikasgela - Febe	35	Behe solairua	Teoria, euskaraz
10. ikasgela - Virginia areto nagusiaren 1. banaketa	50	Behe solairua	Lan-taldeak
10. ikasgela - Areto nagusiaren 2. banaketa	50	Behe solairua	Lan-taldeak
13. ikasgela	8	Sotoa	Lan-taldeak
14. ikasgela	8	Sotoa	Lan-taldeak

IKASLEENTZAKO ORDENAGAILU-GELA:

43 metro koadro ditu, eta 24 ekipo. Ekipo guztiak daude konektatuta EHUren sarera, zuntz optiko bidez, eta ikasle guztiei posta elektronikoko kontu bat kudeatzen die eskolak EHUren CIDIR bidez, erizaintza ikasten hasten direnean.

Ikasleak Osakidetzaren datu-baseetara eta aldizkari elektronikoetara sar daitezen, Osakidetzaren intranetera konektatuta dagoen postu bat ere badu eskolak.

Eraikin guztian dago WIFIa, eta ikasleak EHUko pasahitzarekin sar daitezke.

MAKETA-GELA:

40 metro koadro ditu; panpinez eta osasun-materialez hornitua dago, ikasleak trebatu eta Hendersonek ezarritako gizakien oinarrizko beharren araberako erizaintzako prozedura eta tekniketako gaitasuna eskura dezaten:

- Normaltasunez arnasa hartu
- Ondo jan eta edan
- Organismoko hondarrak atera
- Mugimendu eta postura egokiak eduki
- Atseden hartu eta lo egin
- Arropa egokia hautatu
- Gorputzeko tenperaturari eutsi
- Gorputz-higiene ona izan

Hornidura hauxe dugu: zain-bideak kanalizatzeko simulagailu birtuala, bihotz-biriketako bizkortzerako ekipoak, erizaintzako tekniketarako eta prozeduretarako panpinak, eta teknika eta prozedura horiek aurrera eramateko material klinikoa: suturak, hesgailuak eta immobilizazioak, medikamentuak ematea bide desberdinetatik, serumterapia, sendaketak, nutrizioa, leku desberdinetako zunda sartzeak, higienea, arrisku-eremuak babestea, zain-puntzioak eta edukia ateratzea, hutsean ateratzeko hodiak erabiliz.

ATSEDEN-GELAK:

45 metro koadrokoak dira ikasleek atseden hartzeko dauden bi gelak. Besaulkiak eta mahaiak daude, eta armairuak, harraska bat, hiru hozkailu eta bost mikrouhin-labe dituen sukalondo bat ere bai.

Kafe-, freskagarri- eta opil-makinak ditugu.

Ospitale-eremuan dagoenez, ikasleek aukera dute Txagorritxu Ospitaleko kafetegia eta jatetxea erabiltzeko.

LIBURUTEGIA, HEMEROTEKA ETA IKASKETA-GELA:

119 metro koadro ditu, honela banaturik: bi gela eta administrazioko langileentzako eremu bat.

Guztira, ikasteko 54 leku ditu.

Dokumentazio-funts hau du: 5.130 liburu eta pertsonen zainketa profesionalean espezializatuta dauden 34 aldizkari-bilduma. Zainketaren eremuko dokumentazioari buruzko erreferentzia-zentro bat da, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Eskolako web-orrialdearen bidez kontsulta daitezke funts bibliografikoak, edo liburutegian bertan, bestela, kontsulta-modulu bat duen ordenagailuan.

Gure eskolako baliabide bibliografikoak eta ezagutza hedatzeko eta optimizatzeko aldizkari bibliografiko bat argitaratzen da 1997tik. Irakasle-tutoreei eta irakaskuntza praktikoan parte hartzen duten erizaintzako taldeei bidaltzen zaie, bai eta Osakidetzaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren sareko liburutegiei ere.

PRAKTIKETARAKO ZENTROAK:

Praktika klinikoak egiteko Osakidetzaren asistentzia-maila desberdinetako osasun-zentroak ditu Eskolak: lehen mailako arretakoak, arreta espezializatukoak, eguneko zentroak eta espezialitateen kontsultategiak.
Eskolak lankidetza-hitzarmenak ditu eginda Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko Foru Institutuarekin, ikasleek praktikak egin ditzaten aldundiko instituzionalizazio-zentroetan eta eguneko zentroetan, bai eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin eta Aita Menni Ospitalearekin ere.

1.– ZERBITZUAK:

Eskolak zerbitzu hauek ditu:

- Graduaurrekoa; 2010-2011tik Erizaintzako Gradua ezartzen hasi da, eta desagertzear den Erizaintzako diploma titulazioari euskarria ematen jarraitzen du.
- Ikasleen eta irakasleen mugikortasuna.

<u>Garduaurrekoa:</u>

Erizaintzako gradua eskaintzen du. Urtero, 80 ikasle berri izateko lekua du. 2010-2011 ikasturtean eskaintza hau egin da: 60 ikasle gaztelaniazko lerroan eta 20, euskarazkoan.

Euskarazko prestakuntza, graduko 1. mailako irakasgai guztietan ematen da, eta ikasturte bakoitzean guztiz ezartzen da euskarazko irakaskuntza.

Ikasleak mugitzeko programa dugu, EHUn dauden programa guztien bidez (Erasmus, Socrates, Seneca programak…), eta Latinoamerika eta Asia izeneko trukerako Europako Ekimenean parte hartzen dugu (EHU-AL eta beste leku batzuk). Horietaz gain, Espainiako erizaintza-eskolekin egiten ditugu trukeak; udako eskola (Summer School) ere badugu Utrechten eta Erizaintzako Europako Modulua ere bai.

Aholkularitza eta azpiegiturak uztea:

Osasun Sailaren eta Osakidetza-EOZren mendeko eskola denez, gure zentroak Osakidetzaren Erakunde Zentralak eta Osasun eta Kontsumo Sailak antolatutako zenbait lan- eta berrikuntza-batzordetan parte hartzen du. Horretaz gain, Osakidetzaren zerbitzu-erakundeek eta Erakunde Zentraleko Etengabeko Prestakuntzarako Batzordeak planifikatutako jarduerak egiteko behar beste eremu eta ikus-entzunezko ekipo eskaini eta kudeatzen ditu.

II. ERANSKINA

IRAKASLEEN ZERRENDA

VITORIA-GASTEIZKO ERIZAINTZAKO UNIBERTSITATE ESKOLAKO LANGILEAK LANALDI OSOKO DEDIKAZIOAN, 2011KO URTARRILAREN 31N

NAN	1. abizena	2. abizena	Izena	Titulazio akademikoa		Kontratu-mota
16221217-F	Yarritu	Fernandéz	M.ª Carmen	Gizarte- eta kultura- antropologian **lizentziaduna.** Erizaintzan **lizentziaduna.** Erizaintzan **diplomaduna.**		Lan-kontratu finkoa
72777782-D	Argómaniz	Alutiz	Juana	Antropologian **lizentziaduna.** Erizaintzan **diplomaduna.**		Estatutupeko finkoa
14709852-H	Basurto	Hoyuelos	Salomé	Gizarte- eta kultura-antropologian **lizentziaduna.** Erizaintzan **lizentziaduna.** Erizaintzan **diplomaduna.**	Psikologia eta Hezkuntzan **doktorea**	Estatutupeko finkoa
16251033-S	Betolaza	López de Gamiz	Encarnación	Erizaintzan **diplomaduna.** Osasun mentaleko erizaintzako **espezialitatea.**		Lan-kontratu finkoa
09253091F	Correyero	Tadeo	M.ª Florentina	Erizaintzan **diplomaduna.** Historian **lizentziaduna.** Erizaintza pediatrikoko **espezialitatea.** Asistentzia obstetriko-ginekologikoko (emagina) **espezialitatea.**		Estatutupeko finkoa
16259983-H	de Lorenzo	Urien	Elena	Erizaintzan **diplomaduna.** **Masterra:** Osasun Publikoa eta Osasun-hezkuntza. Prestakuntza eta ikerketa sozio-sanitarioa. **Masterra:** Osasun Zientzien alorreko Ikerketa Kualitatiboa eta Parte-hartzailea. **Masterra:** Zainketen ikerketa.		Estatutupeko finkoa
16277525-B	Fernández	Córdoba	Milagros	Antropologian **lizentziaduna.** Erizaintzan **diplomaduna.**		Estatutupeko finkoa
16235078-E	Fernández de Gamboa	Quitian	M.ª Isabel	Erizaintzan **diplomaduna.**		Estatutupeko finkoa

NAN	1. abizena	2. abizena	Izena	Titulazio akademikoa		Kontratu-mota
16280831-M	Martín	Bezos	Jesús	Erizaintzan **diplomaduna.** Antropologian **lizentziaduna.**		Estatutupeko finkoa
14901112-X	Del Hierro	Ruiz	M.ª Teresa	Erizaintzan **diplomaduna.** **Masterra:** nutrizio klinikoa.		Estatutupeko finkoa
16244758-L	Ruiz de Alegría	Fernández de Retana	Begoña	Antropologian **lizentziaduna.** Erizaintzan **diplomaduna.**	**Doktorea** psikologia sozialean	Estatutupeko finkoa
44161032-C	Aramburu	Chinchurreta	Idoia	Erizaintzan **diplomaduna.** Erizaintzan **lizentziaduna.**		Estatutupeko finkoa
30609794-Z	Ulibarri	Ochoa	Ainhoa	Erizaintzan **diplomaduna.** Erizaintzan **lizentziaduna.**		Estatutupeko behin-behinekoa
13289311-A	Zanza	Castro	M.ª Jesús	Erizaintzan **diplomaduna.**		Estatutupeko finkoa
72724437-R	Cariñanos	Ayala	Susana	Erizaintzan **diplomaduna.** Erizaintzan **lizentziaduna.**		Estatutupeko finkoa
45625493-W	Zarandona	Calvo	Jagoba	Erizaintzan **diplomaduna.** Erizaintzan **lizentziaduna.** **Masterra:** Azterketa Klinikoak.		Estatutupeko finkoa

III. ERANSKINA

ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ZERRENDA, 2011KO URTARRILAREN 31N.

VITORIA-GASTEIZKO ERIZAINTZAKO UNIBERTSITATE ESKOLAKO ADMINISTRAZIOKO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK, 2011KO URTARRILAREN 31N

NAN	1. abizena	2. abizena	Izena	Kontratu-mota
16272012-H	Estavillo	Urarte	M.ª Cruz	Estatutupeko finkoa
16256504-N	Fernández de Aranguiz	Urteaga	Ana María	Estatutupeko finkoa
15376440-C	Magro	García	Estrella	Estatutupeko finkoa
16215232-W	Rodríguez	Martínez de la Pera	Fernando	Lakuako funtzionario finko ez homologatua
16303716-Y	Pliego	Gómez	M.ª Antonia	Estatutupeko finkoa
16270504-M	Echeita	Blanco	Marta	Estatutupeko finkoa
16270142-B	Añibarro	Oyarzábal	Inmaculada	Estatutupeko bitartekoa

IV. ERANSKINA

BARNE-FUNTZIONAMENDUKO ARAUTEGIA.

ARAUTEGI OROKORRA.
Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola.

Patronatuak 2010eko apirilaren 21ean onartua

I. TITULUA

I. KAPITULUA
ESKOLAREN IZAERA

1. artikulua.– Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolan Erizaintzako Diplomadun Titulua eta Erizaintzako Gradua eskuratzeko unibertsitate ikasketak egiten dira, egun indarrean dauden planen arabera.

Eskola Euskal Herriko Unibertsitateari (EHU) atxikita dago 1978tik (14478 Agindua, 1978ko maiatzaren 10ekoa), eta bada atxikipen horren Eguneratze Hitzarmen bat ere, 1998an sinatua (EHAA, 218. zk., 1998ko azaroaren 16koa).

II. KAPITULUA
ARAUKETA

2. artikulua.– Hona Eskola arautzen duten legeak eta araudiak:

a) 6/2001 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateei buruzkoa (BOE, 307. zk., 2001-12-24koa), eta 4/2007 Lege Organikoa, apirilaren 12koa, lehenagoko 6/2001 Lege Organikoa, Unibertsitateei buruzkoa, aldatzen duena (BOE, 89. zk., 2007-04-13koa).
b) 557/1991 Errege Dekretua, apirilaren 12koa, Unibertsitateak eta Unibertsitate Zentroak eratu eta aitortzeari buruzkoa (1991-04-20ko BOE).
c) 485/1995 Errege Dekretua, apirilaren 7koa, 557/1991 Dekretua zabaltzen duena (1995-04-28ko BOE).
d) 322/2003 Dekretua, abenduaren 23koa, UPV/EHUren Estatutuei buruzkoa.
e) Eskola UPV/EHUri Atxikitzeko Akordioa Eguneratzeko Hitzarmena (EHAA, 218. zk., 1998-11-16koa).
f) 268/2001 Dekretua, azaroaren 6koa, Osasun Sailaren Egitura organiko eta funtzionala ezartzen dituena (EHAA, 220. zk., 2001-11-14koa), eta 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa (1998ko azaroaren 14ko EHAA), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Erakunde Publikoaren Estatutu Sozialak arautzen dituena, eta Eskola «Zuzendaritza Nagusia» izeneko zerbitzu-erakundearen parte bilakatzen duena.
g) 579/2009 Dekretua, azaroaren 3koa, Osasun eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituena.
h) Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea.
i) Osakidetzako langileen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena.
j) Arautegi Orokorra.
k) Barne Araudia.

III. KAPITULUA
PARTAIDE IZATEA ETA LOTURA

3. artikulua.– Eskola Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren mendekoa da. 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Erakunde Publikoaren Estatutu Sozialak ezarri zituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua (1998ko azaroaren 14ko EHAA) onetsi zelako, Eskola «Zuzendaritza Nagusia» Zerbitzuen Erakundearen egituraren zati bilakatu zen.

4. artikulua.– Eskola EHUko Errektoretzari loturik dago akademikoki, haren Arabako Campuseko Errektoreordetzaren, Erizaintza Sailaren, EHUko ordezkariaren eta Eskolaren zuzendariaren bitartez.

IV. KAPITULUA
ESKOLAREN MISIOA

5. artikulua.– Eskolak misio hau du:

a) Erizaintza-arloko profesionalak prestatzea, pertsonak samurtasunez zaintzeko gai izan daitezen eta lanbideko balioen araberako izaera eta jokaera izan ditzaten. Printzipio etikoen eta legalen eta ebidentzia zientifikoen arabera jokatzen duten pertsonak prestatzea, diziplina anitzeko taldetan lan egiteko eta aldaketa-eremuetan zainketa orokorrak eskaintzeko prestatuak.
b) Jadanik titulua duten profesionalen etengabeko eta graduatu ondoko prestakuntzan laguntzea.
c) Erizaintzako zainketaren arloan ezagutza eta berrikuntza garatzen laguntzea.

II. TITULUA

I. KAPITULUA
GOBERNU-ORGANOAK

6. artikulua.– Eskolak lagun bakarreko (Zuzendaritza eta Ikasketa Buruzagitza) eta taldeko (Eskola Patronatua) organoak ditu, bere burua gobernatzeko.

II. KAPITULUA
ESKOLA-PATRONATUA

7. artikulua.– Eskola Patronatua da Gobernu- eta Kudeaketa-organo gorena, eta zortzi kide hauek osatzen dute:

a) Eskolako zuzendariak; lehendakari-lanak egiten ditu.
b) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Osasun Laguntzako zuzendariak; berezko bokala da.
c) Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko zuzendariak; berezko bokala da.
d) EHUko ordezkariak.
e) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiak bere karguagatik izendatuko duen erizain batek.
f) Langileen ordezkari batek.
g) Ikasleen ordezkari batek.
h) Ikasketaburuak; berau idazkari lanean arituko da.

8. artikulua.– Eginkizun hauek izendatu zaizkio Patronatuari:

a) Eskolak garatuko dituen estrategiak ezartzea.
b) Eskolaren funtzionamendua eta emaitzak gainbegiratzea.
c) Eskolaren urteko kudeaketa ekonomikoa onartzea.

d) Eskolaren zuzendariaren izendapena proposatzea.

e) Ohiko kudeaketa gainditzen duten erabaki guztiak hartzea, oro har.

9. artikulua.– Beren karguagatik aukeratutako kideak kargu horretan dauden bitartean izango dira kide, eta eskumenak eskuordetu ahal izango dituzte.

Langileen ordezkaria lau urtez behin berrituko da.
Ikasleen ordezkaria 3. edo 4. mailako ikasle bat izango da, eta ikasturteko ordezkarien artetik aukeratuko dute.

10. artikulua.– Patronatuak gutxienez urtean behin egingo du ohiko bilera, eta lehendakariak edo bere kideen heren batek hala eskatzen badute, ezohiko bilera egingo du.

III. KAPITULUA
ZUZENDARITZA

11. artikulua.– Zuzendaria da, zuzen-zuzenean, Eskolaren kudeaketaren arduraduna.

12. artikulua.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusiari dagokio, Patronatuaren proposapena jaso ondoren, Eskolaren zuzendaria izendatzea, aurretik postu hutsaren deialdia egin eta gero. Zuzendaria 4 urterako izendatuko da. Epe hori luzatu egin daiteke, ebaluazioa egin eta gero. Zuzendariak bere agintaldia amaitutakoan, berak eskatuta edo Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusiak aztertutako zentsura mozio baten bidez utziko du kargua, izendatzeko erabilitako tramite bera eginez.

13. artikulua.– Zuzendariaren eginkizunak dira:

a) Kudeaketa-plan bat proposatzea, zentroaren politikaren jarraibide orokorrekin.
b) Helburuak zehaztea.
c) Eskolaren programa, jarduera eta emaitza desberdinak gainbegiratzea.
d) Eskola ordezkatzea, dagozkion ekitaldi ofizialetan.
e) Patronatuko lehendakaria izatea.
f) Klaustroaren eta Eskolan sortzen diren batzorde guztien buru izatea.
g) Ikasketaburua izendatzea eta kargutik kentzea proposatzea, Patronatuari entzun ondoren.
h) Irakasleak eta AZL (administrazioko eta zerbitzuetako langileak) kontratatzea proposatzea.
i) Eskolan egiten diren ohiko eta ezohiko ekitaldiak baimentzea.
j) Bere oniritziz, ziurtagiriak, aktak eta erregistro ofizialak baimentzea.
k) Bere eginkizunei dagozkion edo berariaz laga zaizkion zuzendaritza eskumenak erabiltzea.

IV. KAPITULUA
IKASKETA-BURUZAGITZA

14. artikulua.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusiak izendatuko du Ikasketaburua, Eskolako zuzendariak hala eskaturik, dedikazio osoko irakasleen artean. Zuzenean, haren ardura izango da agiriak, langileen eta ikasleen espedienteak, azterketak eta ebaluazio aktak zaintzea eta artxibatzea, eta dagozkion ziurtagiriak ematea. 4 urterako izendatuko da. Epe hori luza daiteke, ebaluazioa egin eta gero. Eskolako zuzendaria ez badago, hura ordezkatuko du, eta bere eskumenekoak izango dira zuzendariak bere esku uzten dituen gai guztiak.

15. artikulua.– Eginkizun hauek izango ditu:

a) Ikasturteko programazioa proposatzea Eskolaren Zuzendaritzari.
b) Eskola teorikoen, praktikoen eta klinikoen programazioa eta garapena koordinatzea eta gainbegiratzea, indarrean dagoen Ikasketa Planarekin bat.
c) Eskolen ordutegiak eta gainerako irakaskuntza jarduerak zuzenean zaintzea.
d) Ikasleak ebaluatzeko irizpideak bete daitezen zaintzea, ezarriko diren arauekin bat.
e) Eskolaren urteko memoria egiteko irakaskuntza- eta antolaketa-datuak ematea.
f) Klaustroaren eta Patronatuaren idazkari-lanak egitea.
g) Agiriak, langileen eta ikasleen espedienteak, eta azterketen eta ebaluazioen aktak artxibatzeko lana bere gain hartu eta Unibertsitateak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak eta Eskolaren Zuzendaritzak ematen dioten beste edozein eginkizun administratiboren ardura izatea.
h) Dagozkion ziurtagiriak ematea, Zuzendaritzaren oniritzia jaso ondoren.
i) Zuzendaritzak eskuordetu dizkion eskumenak hartzea.
j) Zuzendaritza ordezkatzea, postu hori hutsik bada, edo horren jabea kanpoan edo gaixo badago.
k) Eskolako beste organo batzuek eskuordetu dizkioten beste eskumen guztiak erabiltzea.

Ikasketa Buruzagitza bateragarria da Unibertsitate Eskolan bertan egiten diren irakaskuntza-jarduerekin.

V. KAPITULUA
UNIBERTSITATE-KONTROLA

16. artikulua.– EHUk Eskolan daukan ordezkariak bermatuko du unibertsitate-kontrola. Hark egingo du kontrol akademikoa eta ordezkatuko du Eskola EHUren esparruan. Errektoreak izendatuko du, eta Eskolaren eta EHUren arteko hitzarmenak ezarritako eran egingo du kontrola.

III. TITULUA

I. KAPITULUA
PARTE HARTZEKO EDO AHOLKUAK EMATEKO ORGANOAK

17. artikulua.– Eskolak Irakasleen Klaustroaren, Batzordeen eta Ordezkarien bidez dauka antolatuta bera osatzen duten kideen ordezkaritza eta parte-hartzea.

II. KAPITULUA
KLAUSTROA

18. artikulua.– Klaustroa da Eskolako irakasleen eta ikasleen aholkularitza eta parte-hartze organoa. Hauek dira Klaustroa osatzen dutenak: zuzendaria (bera da buru), irakasleak, maila bakoitzeko ikasle-ordezkari bana eta AZLren ordezkari bat. Urtean bi aldiz (1. eta 3. hiruhilekoetan) deituko du ohiko bilera, eta, ezohikoa, berriz, zuzendariak edo kideen heren batek beharrezko jotzen duten guztietan.

Ikasketaburua arituko da idazkari lanean, eta bilera guztien aktak egingo ditu.

III. KAPITULUA
BATZORDEAK

19. artikulua.– Irakasle-taldea da Zuzendaritzaren aholku organoa Eskolako bizitza akademikoarekin lotutako gai guztietan. Eskolako irakaskuntza programak eta jarduerak aztertzea, proposatzea eta ebaluatzea du eginkizun, bai graduatu aurreko lerroan, bai graduatu ondokoan. Honakoak daude bertan: zuzendaria, ikasketaburua eta lanaldi osoko irakasleak.

20. artikulua.– Irakasle-taldeak hamabost egunez behin egingo du ohiko bilera, eta ezohikoa, berriz, Ikasketa Buruzagitzak edo kideen herenak eskatutakoan.

21. artikulua.– Eskolako jardueraren alor espezifikoak hedatzeko, Zuzendaritzak beharrekoak iruditzen zaizkion Batzorde guztiak sor ditzake, Irakaskuntza Taldearen, AZLren eta ikasleen parte-hartzea indartzeko irizpideari jarraiki.

IV. TITULUA

I. KAPITULUA
IKASKETA-PLANA

22. artikulua.– Erizaintzako Gradua eta Erizaintzako Diplomaduna titulazioen ikasketa-plana EHUn indarrean dagoen Ikasketa Planaren arabera antolatuko da. Ikasketak lege hauen arabera burutuko dira: 6/2011 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa, Unibertsitateei buruzkoa (BOE, 307. zk., 2001-12-24koa) eta 4/2007 Lege Organikoa, apirilaren 12koa, Unibertsitateei buruzko 6/2001 Lege Organikoa aldatzen duenaren arabera (BOE, 89. zk., 2007-04-13koa).

Eskolan ematen den Erizaintzako Diplomarako irakaskuntza hiru ikasturtetan dago antolaturik, dekretu hauetan xedatutakoarekin bat etorriz: urriaren 26ko 1466/1990 Errege Dekretua, Erizaintzako Diplomaduna titulu ofiziala eta hura eskuratzeko ikasketa planen jarraibide orokorrak ezartzen dituena (BOE, 278 zk., 1990eko azaroaren 20koa), ekainaren 10eko 1267/1994 Errege Dekretua urriaren 10eko

1561/1997 Errege Dekretua aldatzen duena, zeinak zenbait unibertsitate-titulu ofizial eta haiek eskuratzeko ikasketa-planen jarraibide orokorrak ezartzen dituzten zenbait Errege Dekretu partzialki aldatzen baititu (BOE, 264. zk., 1997ko azaroaren 4koa), eta une bakoitzean ikasketa hauei aplika dakiekeen gainerako xedapen guztiak.

Gradu-ikasketak, zeinak 2010-2011 ikasturtean jarri ziren abian, unibertsitate-ikasketa ofizialen antolamendua ezartzen duen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren bidez arautzen dira.

23. artikulua.– Vitoria-Gasteizko Erizaintza Eskolan Erizaintzako Diplomadun eta Gradu titulua eskuratzeko egindako eta gainditutako ikasketek, eta EHUk onartutako graduondoko ikasketek ere bai, zuzenean EHUn egindako ikasketen ondorio akademiko berak izango dituzte.

24. artikulua.– Helburu, eduki, lan-metodo eta eskola-egutegi zehatzak ezarrita egingo da irakaskuntzaren antolamendua, irakaskuntzako metodo eta estrategia berritzaileak erabiliz eta ikasleei ikasteko teknikak erakutsiz.

25. artikulua.– Erizaintzarekin edo beste osasun-lanbide batzuekin lotutako beste ikasketa batzuk ere antolatu ditzake Eskolak, espezialitate, graduondoko prestakuntza edo etengabeko prestakuntza gisan, dagozkien diplomen edo tituluen aitorpena eginez. Horiek unibertsitateren batek onartu baditu, unibertsitate horrek aitortuko die balioa.

II. KAPITULUA
ANTOLAMENDU OROKORRA

26. artikulua.– Eskolak ematean, haien alderdi teorikoan eta praktikoan koordinaziorik eta integraziorik handiena bilatzeko, Erizaintzako Diplomarako Ikasketa Planetan dauden irakasgaiak gai ardatz hauetan bildu dira:

1. gaia	B	Erizaintzako Zerbitzuen Administrazioa
2. gaia	B	Zientzia Psikosozial Aplikatuak
3. gaia	B	Erizaintza Komunitarioa
4. gaia	B	Erizaintza Geriatrikoa
5. gaia	B	Amen eta Haurren Erizaintza
6. gaia	B	Erizaintza Mediko-kirurgikoa
7. gaia	B	Erizaintza Psikiatrikoa eta Buru Osasuna
8. gaia	B	Giza gorputzaren egitura eta funtzioa
9. gaia	B	Farmakologia, Nutrizioa eta Dietetika
10. gaia	B	Erizaintzaren Oinarriak
11. gaia	B	Legeria eta Etika Profesionala

ANECA Kalitatearen Agentzia Nazionalak onartu zain dago Erizaintzako Graduaren Ikasketa Plana; ezin da, horrenbestez, zehaztu Erizaintzako Graduko irakasgaiek zer nolako egitura izango duten.

27. artikulua.– Irakasgai bakoitza unitate funtzionaltzat joko da, eta hura irakasteko ardura duten irakasleak bilduko ditu. Gai bati buruzko irakasgai guztiak arduradun batek koordinatuko ditu. Arduradun hori izango da gaiaren irakasle koordinatzailea, eta ahal dela, arduradun hori arduraldi osoko irakasle-taldekoa izango da. Maila bakoitzean eskaintzen diren irakasgaien arteko koordinazio egokia lortzeko,

«ikasturteko koordinatzailea» figura sortuko da ikasturte bakoitzean. Koordinatzaile bakoitzaren zeregina, Eskolako Ikasketaburua buru den Irakaskuntza/Ikaskuntza prozesuaren esparruan azalduko da.

28. artikulua.– Gai bakoitzean, eta irakasgai-esparruan, irakasle-arduradunak landinamika bat ezarriko du, eta, hor, programak, metodologia, ebaluazioa, irakaskuntza garapena eta ikerketa etengabe hobetzeko jarduerak antolatuko dira.

III. KAPITULUA
ESKOLAN SARTZEA

29. artikulua.– Eskolan sartzeko, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak Unibertsitate Eskoletarako ezartzen dituen baldintzak bete behar dira, eta, aurrez zehaztutako epean aurkeztutako eskarien artean, EHUren Araudi Akademikoak eta Eskolak zehaztutako aukeraketa-irizpideak erabiliko dira.

V. TITULUA

I. KAPITULUA
IRAKASLEAK

30. artikulua.– Irakasleek dagokien gaiko irakasgai guztiak irakasteko ardura dute, eta Eskolako hezkuntza-jardueraren ardura orokorra ere badute.

31. artikulua.– Legeak eta EHUko estatutuek Atxikitako Eskolen ezaugarriak dituzten unibertsitate eskolentzat eskatzen duten titulua izan behar dute irakasle guztiek. Urtean behin, Eskolaren zuzendariak dagokion «Venia Docendi»-a eskatuko dio EHUko Errektoreari.

32. artikulua.– Irakaskuntza-dedikazio motak.

Eskolari eskaintzen dizkioten dedikazioa eta eginkizunak kontuan hartuta, irakasleak bi taldetan sailkatzen dira:

1.– Beren dedikazio funtzionalaren arabera, irakasleek izan dezakete:

a) Dedikazio osoa.
b) Dedikazio partziala.
c) Beren eginkizunen arabera, irakasleak izan daitezke:
d) Mailaren koordinatzailea.
e) Irakasgaiaren koordinatzailea.
f) Irakasgai arduradunak.
g) Irakasgaiko laguntzaileak.

33. artikulua.– Dedikazio osoko irakasleak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Erizaintzako Diploma izanik, lanpostua jabetzan eduki, eta Eskolako irakasle moduan bakarrik ari den eta bertako langile-taldeko plaza bat betetzen duen profesionala izango da dedikazio osoko irakasle. Kasu bakanen batean, bestelako loturarik ere izan daiteke.

34. artikulua.– Dedikazio partzialeko irakasleak.

Arduraldi partzialeko irakaslea da, gehienbat osasun-sare publikoarekin lotuta dagoen profesionala eta bere asistentzia-jarduera eta Erizaintzako Eskolako irakaskuntza bateragarri egiten dituena. Langile-mota honek ez du lan-loturarik Eskolarekin.

35. artikulua.– Unibertsitate Eskolako irakasleak eskubideak eta betebehar hauek ditu:

a) Irakasle bakoitza berak irakatsi beharrekoaz arduratzea, eta ahalik eta hezkuntza mailarik handienaz garatzea programak, Ikasketa Planaren eta Eskola Egutegiaren arau orokorren barruan.
b) Egokitu zaizkion irakasgaiaz eta mailaz (programa, edukia, metodologia eta ebaluazioa) arduratzea, beste irakasleekin batera.
c) Bere irakaskuntza-ardurarekin lotura izan eta Eskolak irakaskuntza funtzioa garatzeko antolatzen dituen bilera eta jarduera guztietan parte hartzea.
d) Eskolarekin lankidetzan aritzea, programatzen diren hobekuntza ikastaroetan.
e) Araudi honetan jasotzen denaren eta Barne Araudiaren mende egotea, diziplina erregimenari dagokionez.
f) Eskolaren irakaskuntza maila handitzeko egoki iritzitako ekimenak proposatzea Zuzendaritzari.
g) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak finkatutako ordainsaria jasotzea.
h) Eskolaren jarduera orokorrean parte hartzea; horretarako, ordezkaritza izango du Gobernuko eta Parte Hartzeko eta Aholku Emateko Organoetan, Arautegi honek eta Barne Araudiak zehaztutako eran.
i) «Venia Docendi»-a eskuratzea Eskolatik eta EHUtik.

II. KAPITULUA
IKASLEAK

36. artikulua.– Ikastean ahalik eta errendimendurik handiena ateratzea dute helburu eta betebehar sozial saihestezin Eskolako ikasleek, eta autodiziplinaz eta ardura guztiaz lagundu behar dute beren prestakuntza profesionalaren alde egiten den ahaleginean.

37.1 artikulua.– Eskolako ikasleak eskubide eta betebehar hauek ditu:

a) Gaitasun pertsonalekin bat datorren hezkuntza-orientabide egokia jasotzea ikasketetan, gerora Erizaintzako profesional gisa aritzeko aukera izan dezan gizartean. Gainera, bere prestakuntzak irauten duen bitartean tutoretza- eta orientabide-sistema eraginkorra izango du bere eskura, curriculuma taxutzeko.
b) Irakaskuntzako programazioaren esparruan, hizkuntza ofizial bietako batean ikastea.
c) Irakaskuntza-eskaintza, ebaluazio-probak egiteko egunak eta ikasleentzat antolatzen den deialdi oro aldez aurretik ezagutzea.
d) Ikasketak eta kultura- eta kirol-jarduerak behar bezala egiteko instalazioak eta materialak izatea.
e) Ikasleen mugikortasuna bermatzeko administrazio- eta finantza-laguntza beharrezkoa jasotzea, aurrekontuaren erabilgarritasunaren arabera.

f) Bere errendimendu akademikoa baloratzeko irizpide objektiboak publikotasun nahikoarekin ezagutzea, azterketak edo ebaluazio-probak eskatu ahal izatea, eta, behar izanez gero, dagozkion inpugnazio-bideak erabili ahal izatea.

g) Eskolako jarduerak antolatzen parte hartzea, gobernu eta aholku organoetan ordezkaritza izanik, Arautegi honek eta Barne Araudiak ezartzen duten eran.

h) Eskolako ohiko jardueran parte hartzea, ordena eta diziplina akademikoa izan dadin lagunduz.

i) Unibertsitateko gobernu-organoetan ordezkaturik egotea, ordezkaritza eta ikasleen partaidetzarako legeek dioten eran.

j) Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak, Unibertsitateak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak edo Osasun Sailak ezarritako bekak eta gizarte laguntzak eskuratzea.

k) Unibertsitatean egiten diren eta ikasleen garapen profesionalerako onak diren eskolaz kanpoko kultur jardueren informazioa jasotzea eta haietan parte hartzea.

l) Kritika lagungarriak eta arrazoizko erreklamazioak egitea Eskolako, Unibertsitateko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko edo Osasun Saileko organo eskudunen aurrean.

m) Unibertsitateak erabakitzen dituen tasak eta Eskolak erabakiko dituen beste kontzeptu batzuk ordaintzea.

n) Arautegi honek eta Barne Araudiak ezartzen dutenaren mende egotea, diziplina erregimenari dagokionez.

o) Irakasleen irakaskuntza-ebaluazioan parte hartzea eta, Eskolako jardunbideen arabera, ebaluazio horien berri izatea.

p) Azterketak eta ebaluazio-probak bi hizkuntza ofizialetako batean egitea, irakaskuntzako programazioaren esparruan.

q) Aukeratzen duten deialdian aurkeztea irakasgaietan, Gizarte Kontseiluak onetsitako iraupen-arautegiaren eta ebaluazio-arautegiaren arabera.

r) Gizarte Segurantzaren babesa izatea, indarreko legeriaren arabera.

s) Osasunean eta arriskuen prebentzioan babes eraginkorra izatea Unibertsitateko Campusen barruan eta, batez ere, irakaskuntza praktikoaren esparruan.

t) Irakasgai bereko zenbait talde badaude, oinarrizko ikasgai-zerrenda berbera izatea guztiek, eta ekitate, justizia eta irakatsitako irakaskuntza-mailaren arabera ebalua ditzatela guztiak.

37.2 artikulua.– Ikasleek EHUko gobernu-, ordezkaritza- eta administrazio-organoetan parte hartzeko duten eskubideak esan nahi du:

a) Hauteskundeetan botoa emateko eskubidea eta hautagai izateko eskubidea, Arautegi honen eta arautegi hau garatzen duten arauen arabera.

b) Unibertsitatearen erabilgarritasunaren arabera, jarduera horiekin zerikusia duten bilerak egiteko tokiak izateko eskubidea.

c) Ikasleei eta Unibertsitate-erkidegoko gainerako kideei, egoki deritzoten unibertsitate-jarduerari buruzko informazioa jakinarazteko baliabide beharrezkoak eskuratzea.

d) Unibertsitatearen kalitatea hobetzeko programak taxutzen eta garatzen laguntzea, arautegiaren arabera.

37.3 artikulua.– Ikasleek gai hauetaz behar bezalako informazioa izateko eskubidea dute:

a) Ikasle gisa dagozkien eskubidez eta betebeharrez.
b) Irakasgai bakoitzeko toki-kopuruaren eskaintzaz, baita epeez eta sartzeko jardunbideez ere.
c) Ikasketa-beka eta -laguntza guztiez, bereziki EHUk ematen dituenez.
d) Kultura-, kirol- edo ikasleen intereseko izan daitezkeen jarduerez.
e) Kanpoko praktika-eskaintzez, enplegu-eskaintzez, ostatu-eskaintzez, edo EHUren bidez bideratzen diren bestelako eskaintzez.
f) Ikerketa Sailetako edo Unibertsitate Institutuetako ikerketa-lerroez, eta horiekin elkarlanean aritzeko toki-eskaintzaz.
g) Ikasleek informazio egokia izateko duten eskubidea bermatzeko, Eskolak, Ordezkarien Batzordearen partaidetzarekin, ikasleak hartu eta horiei aholku emateko moduak garatuko ditu.

37.4 artikulua.– Eskolako ikasleen betebeharrak dira:

a) Ikastea, eta hirugarren zikloko ikasleek, ikertzea ere bai.
b) Unibertsitate-elkarteko kideekiko harremanean unibertsitateko usadioak errespetatzea.
c) Eskolako instalazioak, ondasunak eta baliabideak behar bezala erabiltzea.
d) Arautegi hau eta arautegia garatzen duten arauak betetzea, baita barne-araudiko arauak ere.
e) Hautatzen diren ordezkaritza-postuen erantzukizunak nork bere gain hartzea.
f) Unibertsitate-elkarteko gainerako kideekin lankidetzan jardutea, Eskolako helburuak lortzeko.

III. KAPITULUA
IRAKASLEAK EZ DIREN ADMINISTRAZIOKO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

38. artikulua.– Talde honetan sartzen dira: kudeaketa taldeko langileak, administrari laguntzaileak, zelariak, laguntzako langile teknikoak etab.

39. artikulua.– Eskolako Zuzendaritzaren mende egongo dira, eta agindutako lanak egingo dituzte, nork bere alorrean.

IV. KAPITULUA
DIZIPLINA-ARAUBIDEA

40. artikulua.– Eskolaren funtzionamendu onerako, bertako langile guztiak, irakasleak eta irakasle ez direnak, bai eta ikasleak ere, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langileen lan-baldintzak arautzen diren akordioan eta Eskolako Barne Araudian jasotako diziplina-neurrien mende egongo dira.

V. KAPITULUA
FINANTZAKETA

41. artikulua.– Eskola, «Zuzendaritza Nagusia» zerbitzu erakundearen barrukoa denez, erakunde horren kontratu-programaren bitartez finantzatzen da.

42. artikulua.– Urtero, Patronatuak Eskolaren inbertsio-beharrak eta memoria ekonomikoa onartuko ditu.